

Ezpalak

JON TORNER

Luzien Etxezaharreta olerkari lapurtarra izango da ekainaren 2an Agoitzen ospatuko den Nafarroako II. Poesiaren Bilzarreko gonbidatu nagusia. Egunean zehar, poesia tailerrak eta olerki errezitaldiak egingo dituzte, besteak beste.

Josanton Artzek 1969an kaleratu zuen bere kabuz *Isturizetik Tolosan barru* liburu. Lan berritzailea izan zen Artzerena. Poemetako asko bisualak ziren, irakurtzekoak ez ezik ikustekoak. Testu eta irudiez gain binilozko disko txikia kaleratu zuen, liburuako poema batzuen grabazioa jasotzen zuena. Orain, *Isturizetik Tolosan barru* liburuaren berrargitalpena kaleratu dute Pamiela argitaletxeak eta Arteola elkarteak. Faksimil gisa kaleratu dute eta 1969ko grabazio hura CD formatuan jaso dute, Artzek sartu dituen beste hainbat poema errezitatu gehituta.

Carlos Ribera pintore surrealista-ren obrak Donostiako Boulevard Kutxa aretoan daude ikusgai, *Carlos Ribera, bere ekarpena arteari* izenburupean. Ribera (Alzira, 1906 – Donostia, 1976), Salvador Dalí, Federico García Lorca eta Luis Buñuelek aritu zen orpo. Zinegotzi izan zen Donostian.



Jesus Mari Lazkanok *Berrian*: «Beharrezkoa da instituzioek zenbait artistaren lanak diruz laguntzea eta hasiberriek bekak ematea, baina horrek ez du esan nahi artea instituzionalizatu behar denik. Itxuraz alternatiboak diren artisten obrak estatuaren diruz lagunduta daude: egungo Gorteko artista bihurtu dira hainbat sortzaile. Horregatik iruditzen zait bildumagintza garrantzitsua dela».

Fredi Paiak *Matrakan*: «Argi dago Hitzetik Hortzerak eta bertsolaritzaren errealitate publikoa kudeatzen dutenek irudi hori saltzen digutela. Euskal Herrian hamar bertsolarik baino ez duela abesten. Eta hori gezurra da, begi-

ratu agendetan. Arazo nagusia da txapelketako emaitzen eta bertsolarien plaza kopuruaren arteko dibortzio nabarmenak daudela. Arrakasta komunikatiboa ezin delako zenbakiekin neurtu. Baina bertso munduko jakintsu ortodoxoenek uste dute zalearen gustuen gainetik daudela».

Kepa Sojok *Diario de Noticias de Alavan*: «Euskal Herrian badira Zinemastea eta beste jaialdi batzuk, baina euskal film laburrak gain, gure zuzendariak ere errebindikatu behar dira. Mundu honetan dirulaguntzak lortzea helburu duten pikaro asko daude, hemen filmatzen duten baina hemengoak ez diren zuzendariak».

Eva Forest hil da

LARUNBATEAN eman zuen azken hatsa Eva Forest idazle eta intelektualak. *Operación Ogro* liburuaren egilea Bartzelonan jaio zen arren, aspaldidanik Hondarribian bizi zen Alfonso Sastrerekin. Ezkerreko ideiekin engaiatua, elkartasunak Kuba, Vietnam, Sobiet Batasuna eta Ekialde Hurbilera eraman zuen, besteak beste. Torturaren Aurkako Taldearen (TAT) sorreran parte hartu zuen eta gaiaren inguruko hainbat liburu idatzi zituen. Kartzela ere ezagutu zuen bere ideia politikoengatik, 1962an lehen aldiz, 1974an bigarren. *Diario y cartas desde la cárcel* liburuak ematen du garai horren testigantza. 1990etik Hiru argitaletxean ziharduen lanean buru belarri. Bibliografia zabala eta liburu argitaragabe ugari utzi ditu, inork bete ezingo duen hutsuneaz gain.



Zinema eraikitzen

DONOSTIAKO Nazioarteko Zinemaldiak, Tolosako Zinema Latinoamerikarren Topaketak (Frantzia) eta Guadalajarako Nazioarteko Zinemaldiak (Mexiko) antolatzen dute Zinema Eraikitzen ekimena, film luzei azken ukituak ematen laguntzeko helburuarekin. Zinema Eraikitzen irailaren 25ean eta 26an egingo da, Donostiako Zinemaldiaren barruan. Egitasmoak aurkezteko epea ekainaren 30ean amaituko da. Zinemaldia irailaren 20tik 29ra bitartean izango da.

Mundumira Aretxabaletan

MUNDUKO BAZTER GUZTIETAKO musika, antzerkia, artisautzia eta gastronomiaz gozatzeko aukera izango da ekainaren 1etik 3ra bitartean Aretxabaletan. Han ospatuko da *Euskal Herria* aldizkariak eta Gin Tonic ekoizpen etxeak antolatu ohi duten Mundumira jaialdiaren 3. edizioa. Hiru egun horietan hamaika ikusgarri izango da Aretxabaletan, baina musika izango da protagonista. Besteak beste, Palestinako DAM hip hop taldea, Mariana Ramos Cabo Verdeko abeslaria eta Kiko Veneno musikari kataluniarra izango dira bertan.

Egitarau osoa: www.mundumirafesta.com.



Leiho bat ataskoan

Naizitenjan, The Window Ventanas
Cantón Records (1997)

Ordubete da gidariak alboko autoei erreparatzen ez diela. Berean dago eta, arraroa badirudi ere, ez da onetik atera eguzkitan autoarekin ez aurrera eta ez atzera. Hamar urte izango dira honezkero. Soinu handirik atera gabe itxi zuten leihoa. *Windowa*. "Hauetaz zerbait idatzi beharko diagu ba?"

Idatzi, adibidez, bazela Tolosa alde horretan The Window Ventanas izena zuen talde bat. Historia, bertso txikitant honakoa da: bi maketa eta *Naizitenjan* LP hau; 50 kontzertu inguru, horietako batzuk Suitzan 92an egindako biran; bateria-joleak aldatu, Bilbo Hiria lehiaketan parte hartu, *Diario Vascoren DVorame* gehigarriak antolatutako maketa lehiaketa irabazi eta azken kontzertuak eskaini. 1998, ixteko ordua.

Zer ziren ba? Undergroundaren undergrounda. Pop-rock talde sotil bat, halako indie eta garaje rock ukitu batekin. Noiz ordea? RRV-aren ajeen (*quosque tandem?*) hamarkada betean. Jendea ez zegoen prest. Teklatua eta guzti zeukaten, jainkoarren!

Donostiarako ataskoa, zeruertzainokoa, eta eskerrak erredakzioko disko zaharren artetik ale

arraro hau erreskatatu duen. Auto ilara Super 8 kamera batekin grabatutako bideo-klipa bezala ikusten hasi da 17 abestiei esker.

"Hauetaz idatzi beharko diagu ba?". Aurkikuntza izan dela, merezi duela.

Ez dira itzuliko. "*Revival*-a ezinezkoa da lehen arrakastarik izan ez bazenuen. Ez dut uste orain gu ikustera jende asko joango zenik", Jon Martijak, taldeko kantari izandakoak, telefonoaren beste aldetik.

Eseki eta pena dela pentsatu du gidariak. Eta mereziko lukeela gure musikagintzaren historia petral antzeko bat idazten hasteak, fetitxistentzako besterik ez bada ere. Lagundu nahi duenak bota harri koxkorra bentana honetara.



GORKA BEREZIARTUA

Emaitzak

Hemeroteka

Loturak

Balorazioak ▼

- ▶ **ARGIAren analisi propioa**
- ▶ ***Bixente Serrano Izko***
- ▶ ***Iñaki Martínez de Luna***
- ▶ ***Andoni Egaña***
- ▶ ***Jose Maria Arrate***
- ▶ ***Iñaki Antigüedad***
- ▶ ***Jose Mari Esparza***
- ▶ ***Inma Errea***
- ▶ ***Mari Karmen Garmendia***

HAUTESKUNDEEN
EMAITZEN JARRAIPENA
www.argia.com-en

Maiatzaren 28an

sareko
ARGIA

